

DIRU ITURRIAK:

Gastuak kontuan izanda, irabazi onak izateko prezioak adostu ditugu. Gure kasuan, maila ekonomiko guztietan pentsatu dugu, adibidez, 15€ poltsikoan dituenarentzat edota 100€ dituenarentzat.



Kalitatearen arabera bi prezio tarte izango ditugu (GUK EKOITZITAKOAK):

- Sudaderak: Kalitate altua: -----59,99€
Kalitate erdia: ----- 29,99€
- Kamisetak: Kalitate altua: ----39,99€
Kalitate erdia: -----18,55€
- Praka bakeroak (oversize & relaxed): Kalitate altua: -----54,99€
Kalitate erdia: -----25,99€

Bestalde, bazkide bakoitzak (2 eta inbertsore bat) 2000€ ipiniko ditu negozioaren hasieran aurrera eraman ahal izateko.

Gainera, gure plataformaren barruan publizitatea izaten saiatuko gara, honek sarrera gehiago eman ahal dizkigulako. Google ads erabiliko dugu, honek publizitate edo iragarki marko txiki batzuk izateagatik dirua ematen digulako.

Hala ere, ez dugu publizitatearekin abusatu nahi, azken finean badakigu zein nekagarria den iragarkiak etengabe agertzea, beraz, publizitate urria edo gutxienez webgunearen izkina batean agertzea egingo dugu.

Sare sozialak zabalduko ditugu, hala nola Tik Tok, Instagram... Probabilitatea txikia den arren, posible da hauetatik dirua ateratzea. Hala ere, dirurik lortuko ez bagenu errentagarria irtengo litzaiguke hauek izatea gure arropa gehiago saltzen lagun gaitzkeelako.

